

Egun on,

jaun-andreak,

lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu hemen egoteko aukera emateagatik.

Asasam-en izenean etorri gara gaur hona.

Gaixotasun mentala duten pertsonen eta senideen Aiaraldeko elkarte da ASASAM. Elkarteak 30 urtetik gora daramatza kolektibo honekin lanean Goi Nerbioi aldean, hau da, Laudio, Amurrio, Okondo, Aiara, Artziniega, Orozko, Urduña, Arakaldo eta Arrankudiagan. Horri esker, ondo ezagutzen dugu zonalde horretako errealitate soziala eta geografikoa, eta bereziki, kolektibo zaurgarriek bizi dituzten desparekotasun egoerak, gaixotasun mentala duten pertsonen egoera hain zuzen.

Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela 2017ko azaroaren 3an proposatutako ekintza-ildoak gogoraraztea; ez dugu horiei buruzko gobernuaren erantzunik jaso, ezta oposizioaren babesik ere. Izan ere, egonkor mantentzeaz harago, plazaratutako kezkak agerikoak bihurtzen hasi dira Arabako Foru Aldundiak gaur egun diruz lagundutako baliabideei dagokienez.

Jarraian, Aiarako Kuadrillan osasun mentalaren gaiari heltzeko proposatutako 3 ekintza-ildoen egoera zehaztuko dugu:

Lehenik eta behin, **GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO AIARAKO KUADRILLAN DAUDEN EGOITZA-BALIABIDEEN EGOERA** aipatu behar dugu. 2017ko azaroaren 3an, ASASAMeko lantalde honek berak adierazi zuen Aiarako haranean egoitza-baliabide berriak sortzeko beharra zegoela gaixotasun mentala duten pertsonentzat.

Gaur egun, Aiarako Kuadrillak 40.000 biztanleko errolda dauka. Kuadrillan, gaixotasun mentala duten pertsonentzako 3 egoitza-plaza daude, arreta ez iraunkorrekoak eta arreta-maila baxukoak, eta bizitza autonomora zuzendutako 7 hezkuntza-laguntza. Agerikoa denez, baliabide mugatua da, kontuan hartuta Aiarako Kuadrillan, gutxi gorabehera, jomugan dagoen biztanleria 1.038 pertsonakoa dela; hala, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzek egiazko premiaren %0.014 betetzen dute eskualdean.

Egoitza-programan plazak areagotzeko eskatu genuenetik 12 urte pasa dira, eta ez dugu erakundeen erantzunik jaso. Erantzun ofizialik ez izan arren, hainbat aipamen egin dituzte prentsa idatzian eta irratian. Adibidez, Gizarte Zerbitzuetako diputatuak agerraldi ofiziala egin zuen Batzar Nagusietan, 2018ko maiatzaren 4an, eta bertan Arabako Foru Aldundiko zenbait arduradunek adierazi zuten proiektua martxan zegoela. Albiste horiek eta adierazpenen transkripzioak biltzen dituen Dosierra kontsultatu daiteke. Horietako bat aipatzearen, Radio Aialan 2019ko apirilaren 9an egindako elkarrizketa batean, Ramiro Gonzalez Ahaldun Nagusiak honakoa dio, hitzez hitz: “Aurreikusi dugu aurten, eta tramiteak hasi dira dagoeneko, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza bat zabaltzea, hemen, Laudion. Baliabide hori Asasam-ekin batera jarriko dugu martxan. 6 pertsonentzako pisua da, 24 orduko arretarekin. Une honetan pisuaren kokapen zehatza erabakitzeke fasean gaude, baina badakigu hemen izango dela, Laudion”. Gaur egun, esan bezala, Asasam-ek ez dauka baliabide hori exekutatu dela adierazten duen inolako notifikaziorik edo daturik. Are gehiago, Gizarte Ongizateko diputatu berriarekin lehenbiziko bilera egin genuenean, erantzun zigun ez berak ezta bere lantaldeak ere ez zutela egoitza proiektu horren berri.

Azken urteotako eztabaidagaietako bat da ez dagoela eskaera nahikorik baliabide hori gauzatzeko. Baina gertatzen dena da gaur egun ez dagoela itzarote-zerrenda ofizialik, Laudion egoitza-plaza gehiagorik ez dagoelako, eta ondorioz, Aiarako Kuadrillan egoitza-plaza bat eskatu nahi duten gaixo mentalek ezin dute halakorik egin. Hala ere, nabarmena da Laudion zerbitzu horren premia dagoela, egoitza-eskaerak aztertuz gero. Izan ere, hainbat pertsona desesperatu egin dira mugitzen ez ziren itzarote-zerrendetan egoteaz, eta horrek babesgabetasuna eta bazterkeria soziala eragin ditu.

Nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela gaixoak beren ingurunean mantentzea, horrela, gaixo mentalaren errotze pertsonala, soziala eta familiarra sustatzeko. Hala ere, aipatutako egoeraren ondorioz, pertsona batzuek Gasteizko egoitza batera joan behar izaten dute, nahiz eta hori ez izan hasieran zeukaten nahia. Horren ondorioz, haien familiak ere hara joan behar izan dira, lotura afektiboak eusteko.

Premia hori are gehiago nabarmendu da COVID-19aren ondoriozko alarma-egoeran eta konfinamendu garaian. Guztiok bizi izan dugun ziurgabetasuna eta estresa agerikoagoa da gaixotasun mentala duten pertsonen artean. Egoerak hainbat gorabehera eragin zituen, eta agerian geratu zen beharrezkoa zela 24 orduko **arreta-**

baliabide bat sortzea. Asasam-ek, gaur egun, ez du ingurune egokirik ezta langile nahikorik ere; izan ere, egoitza-baliabideak **arreta-maila** baxua du, eta langile bakarra dago.

Labur, eta alderdi garrantzitsuenera itzulita, baliabide faltaren ondorioz, gaixo mentalen autonomia eta bizi-kalitatea mugatuta daude, ez baitute beren beharretara egokitutako egoitza-baliabiderik beren inguru sozialaren baitan.

Hori dela eta, Asasam-ek Arabako Batzar Nagusiei eskatu nahi die, berriz ere, gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-baliabide berriak sor ditzala Aiaraldean, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen zorroa eta aipatutako promesak betetzeko.

Bigarren, **ARABAKO DIPUTAZIOAREN ETA ASASAM-EN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN MOTAK** aipatu nahi ditugu. 2017an plazaratutako kezkak egi bihurtuta, 2020. urtearen hasieran emandako zerbitzuak bi hitzarmenetan banatzen dira. Jakingo duzuen moduan, hitzarmen batzuk, lehen aldiz, II. Kapitulutik (2019) IV. Kapitulura (2020) igarotzen dira, osorik edo zati batean, GOFeren 2020ko Aurrekontu Orokorretan. Horrek esan nahi du IV. kapitulura igarotzen diren zerbitzuek, hala nola Gizarte Ekintzako Programaren zati batek (%30), kudeaketa-zerbitzuak (%25), administrazio-zerbitzuak (%10) eta garbiketa-zerbitzuak (%50), ez dutela aurrekonturik lortzen, eta 2021etik aurrera ez direla finantzatuko lanpostu horiei dagozkien soldata-igoerak.

Beste behin ere, COVID-19aren alarma-egoera dela eta, ziurgabetasun egoera larriagotu egiten da: egun batetik bestera jakinarazi digute ez dituztela laneko bajak ordaintzen, ezta alarma-egoeraren aurretik zeudenak ere. Ulertzen dugu AFaren justifikazioa, adierazten duenean baliabideak itxita daudela, baina horrek ez du esan nahi erabiltzaileei arretarik ematen ez zaienik; aitzitik, bestelako aukerak bilatu dira, telefono bidezko jarraipena eta etxez etxeko arreta kasu, eta egoera honetan inoiz baino garrantzitsuagoa da hori, konfinamendu-egoera ahalik eta hoberen bizi dezaten. Egoera honek 2017an plazaratutako kezka ziurtatu besterik ez du egiten, eta ziurgabetasuna eragiten du zerbitzuen finantzaketari dagokionez, baita erakundearen zerbitzuen arteko konparazio bidegabea ere.

Azkenik, **GAIXOTASUN MENTALA DUTEN ETA BIZKAIKO UDALERRI MUGAKIDEETAN BIZI DIREN PERTSONEN EGOERA KONPONTZEKO BEHARRA DAGO (Urduña, Arakaldo, Arrankudiaga eta Orozko)**. Gaur egun ez zaio eskaera horri erantzun, eta hala ere, udalerrri horietako pertsona batzuei programa psikosozialean ematen zaie arreta, bai jardueretan baita laguntza psikologikoan ere. Kontu hori funtsezkoa da udalerrri horietako gaixo mentalei arreta sozial duina eta kalitatezkoa eskaintzeko. ASASAMen ustez, ezinbestekoa da erakundeek akordioak lortzea, gaixotasun mentala duten Bizkaiko pertsonak Arabako baliabideak eskuratu ahal izateko, eta horrela, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko. Ez litzateke izango partekatzen den lehenbiziko zerbitzua; izan ere, hala egiten da osasun- eta segurtasun-zerbitzuekin ere.

Beste behin ere, kudeaketa horren arduradun diren erakundeek ez diote erantzunik eman azaleratutako arazoari.

Beharrezkoa da Arabako erakundeek gaixotasun mentala duten Aiarako Kuadrillako pertsona guztiei arreta duina eta kalitatezkoa bermatzea, beren ingurunean. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak dioen bezala, *"Plangintzak, Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa hartzen du oinarrizko tresna gisa. Plan estrategiko horrek, aldi berean, Gizarte Zerbitzuen Mapa integratu beharko du, eta maparen eginkizuna Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzea izango da; horretarako katalogoan dauden zerbitzuak ezartzeko biztanleria-irizpide egokienak definituko ditu, **horien izaera kontuan hartuta, eskatzaileak izan daitezkeen pertsona kopuruari erreparatuta, eta ahal den neurrian, haien hurbiltasuna bermatzeko beharra zainduta, erabiltzaileak ohiko ingurune sozialean integratzea errazteko"**.*

Horregatik eskatzen dugu, gizarte-zerbitzuak berregituratzeko prozesuan, kontuan har daitezela kaltetutako pertsonen beharrak eta nahiak, eta bermatu daitezela Aiarako Kuadrillan gaixotasun mentala duten pertsonen osatze-prozesua eta bizi-kalitatea hobetzeko beharrezko egoitza-baliabideak, zentro psikosoziala, esku-hartze psikoedukatiboko programak, esku-hartze komunitarioa, zentro okupazionala, gizarteratzeko eta laneratzeko programak, etab.

Horregatik guztiagatik, Arabako Batzar Nagusiei honako mozio hau babesteko eskatzen diegu:

- Asasam-ek, Arabako Batzar Nagusietan, Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio:
 - Aiaraldean gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-baliabide berriei buruzko erantzuna emateko. 2017an eskatu zen, eta hamabi urteko prozesua izan du.
 - Mantentze eta Autonomiarako Hitzarmenen berregituraketa birplanteatzeko, eta horrela, Zentro Psikosozialaren Zerbitzua mantenduko dela bermatzeko, zerbitzu horrek eskualdeko pertsona horiei arreta ematen baitie.
 - Bizkaiko Foru Aldundiarekin beharrezko akordio guztiak negoziatu eta sinatzeko, gaixotasun mentala duten Bizkaiko pertsonen (Urduña, Orozko, Arakaldo eta Arrankudiaga) Aiaran kokatutako Arabako baliabideak eskura ditzaten.